

agur t' erdi aberkideok

Atzo arratsaldean, Hendaia-ko Santa Ana elizaren ondoan tinkaturik zegoen pankarta apalean, hau irakur zitekeen: «Gose-Greba: 22. eguna». Besterik ez iaia. Eta Iraileko egun zoragarria anitz kolore-nabarduratan itzaltzen hasten zelarrik, zenbait koltxoi ageri zen aterpearen ondoan; eta beroietan, erdi lo erdi itzarrik, ahuleziak denak markaturik, gose-grebalariak. Aulki batetan eserita, oraindik bere operazioaren ondorioz oso makalduta, eta nekez mintzo, Zokoa-ko Aita Lartzabal famatua, bere tronbosia gaintitzen ari.

— Ez dut nik luzaz atxekiko. Baina ahalkegarria da hau; eta neure leku-kotasuna bederen eskaintzera etorri naiz. Lotsagarria da gertatzen ari den guztia.

Goizean beste hamar gehiago ospitalera eramanak: zazpi ekamuke eta hiru gizaseme. Glukosarik ez, potasioa urri, gaizki oso; tentsioa ere apala, eta bi puntuen arteko diferentzia, txikiagi: 8-6, 9-6, are gutxiago ere.

Aita Lartzabal astelehenean sartuz geroztik, bost ipartar grebalarien artean. Gainerakoak Hegoaldekoak dira.

— Ez esan, otoi, inoren izenik — erregetu didate.

Eta eskaera beteko dut, beraz.

— I. ibili da gaizkienik. Hemendik eraman zutenean, eskuen eta oinen punttak ubelduta zituen. Eta ospitalerakoan negar ere egiten zuen, baina ez zuen ezer hartu nahi. Emakume gaitza da!

Senarrak ere baluke zer kondatze-korik.

Zazpi horien artean, atentatuak jasanik, senarra galdurik, semea metrailaz zauriturik, alargundurik, sofrimendu eta zorigaitz guztiak irentsirik duten abertzaleak daude. Dena eman dute Euskadi-ren alde, dena galdu; dena isilik eskaini, izenak ere izkutatuz.

Baina hau kondatu dudanean, norbaitek berehala erantzun dit:

— Tira, tira! Beti esajeratzen ditek; eta gero, egia jakiten denean, okerrago duk. Eta, gainera, zer dago horren guztiaren atzetik? Zer nahi dute «horien atzetik?»

Hori esaten zuenak, jakina, goseoporra zer den ez daki; eta gartzela eta deserria zer diren ere ez. Baina, «zein ote dago horien atzetik?» Horra, irakurle!

«De Garaikoetxea» edo «De Arzallus» en emazteak beren gose-grebako

22. egunean baleude, tankera horretako eritziak emango lituzkeen euskaldunak zer entzun behar lukeen badakigu. Eta bidez entzun-eraziak lirarteke, noski. Baina dena eman duten «horiek» izanez gero, «zer nahi ote dute?». Gainera, jakina denez, «esajeratzen ari dira»... Horra hor, berriro ere, irenduen hizkera; horra hor jendillaje kaskarraren argudioak.

Jendillaje horrek ireki baitzuen Urriaren 28-an «hizearen baimena»; eta hau guztia Urriaren 28-ko kate-segida baita.

Euskaldunek, ordea, Euskadin bizitzeko eskubidea dute; espāñatarrek Espāñan bizitzeko eskubide sakratua duten bezalaxe. Eta eskubide hori gaur, eta pratikan, defenditzen ez duten euskaldunek, beren buruz esaten dute argi eta garbi zen diren.

Edozein gizonek, bestalde, juzkatua izateko eskubidea du. Iparraldean demokraziarik baldin badago, eta urrundu eta txikitu nahi diren horiek

«terroristak» baldin badira, aski da hauzi politikoen bitartez (baina ez bestela) juzkatzea eta kondenatzea. Jakina: Fraitziak ez du honelakorik nahi, eta Espāñak ere ez. Beti «demokrazia» aipu duten euskaldunek, beraz, aski luteke hauzi politiko horiek eskatzea; baina ez dute horrelakorik eskatzen. Uso zuriak kalez kale paseatzea aski dute.

Hendaia-ko grebalarien alde jokatu ez duten euskaldunek, nekez merezi dezakete abertzale izenik, eta hori bezain nekez ere demokratarenik.

Eman dezagun, ordea, nahiz hau ematea gehiegizkoa izan, gose-greban dauden abertzaleok zeharo oker daudela, bide horretatik inora ez goazela, eta abar, eta abar. Eta ene galdera hau da: nola liteke indar politiko ezagunen burukiderik bat ere, gizon gisa bederen, hara ez agertzea?

Ez omen da sendimendu onekin politika onik egiten. Nahiz belaskeriek eta kaskarkeriek zer debru eraiki daiteke garbi ageri ez bazait ere. Nola liteke, ordea, inorengan gizona, politikariari; eta abertzalea, alderdikideari, ez nagusitzea? Nola uler daiteke kausaren alde dena eskaini eta eman duten horien egoera latzak,



En camillas, al borde de la consumción son trasladados al hospital los refugiados vascos

zapatillatan egon diren horietako baten ere bihotza ez hunkitzea?

Uso zuriak paseatu zituzten horietako inortxok ere ez baitu aski kurairik izan hara agertzeko, eta alderdikierien gaineratik aberkide zanpatuari eskua hestutzeko ausardiarik!

Isiltasunezko murru bat sortu da horrela; eta udaletxeetan beretan ere, «eguneroko lana egin beharra» delata, errefuxiatuen arazoa baztertua izan da... Gauza bera manifestazioetan, noski.

Ez dago zalantzarik, beraz, benetako malkorrak, eta arroilak, eta amildegiak, sortzen ari direla gure artean (gure artean ote?) orain dela hamaika hilabete.


Baina aberri askatu, anaikor eta berdintzailearen helburua daramaten abertzaleek ongi dakite nor ari den geroa eraikitzen, eta nor berriz isuritako malkoak eta odola likidazionismoaren aldarean saltzen. Abertzale horiek ongi dakite, bai, bere azken zolaraino zapaldua eta ukatua izan den herriak, besterik behar duela bere burua altxatzeko. Baina kaskarkeriaren jendillajeak hau ez daki; behar den handitasun apurra bera ere falta zaiolako.

Hendaiaiko aberkide miresgarriok: baliteke aste luze hauetako ahaleginak porrot egitea. Baliteke. Etsaiak ongi baitaki nor behar duen zapaldu eta nor arribarrez errezebitu.


Baina Euskadi askatua inoiz jaioko bada, zuek ereindako hazotik jaioko da. Eta ez belaskeriaren hirakatik eta folklorekeriaren pozoinetik.

Zer gerta ere, biba zuek!

TXILLARDEGI
Hendaian, 1979-IX-10



Arriba: manifestación pacífica - la CRS no intervino - en apoyo a los refugiados. Biarritz.
Abajo: los huelguistas de hambre en Hendaya reciben e informan a quienes se acercan interesándose por ellos.



A últimas horas del día 11, cuatro huelguistas de hambre eran trasladados al hospital de Bayona. Horas antes otros diez habían sido igualmente hospitalizados. La situación de los refugiados se agrava cada vez más.

La «frontera» se cerró para Juan José Etxabe cuando volvía de hacer unas compras en Irún camino de su casa de San Juan de Luz.

A última hora de la noche del martes, la policía francesa seguía incomodando a varios concejales y alcaldes guipuzcoanos que por la mañana habían entregado un escrito de apoyo a los refugiados en la prefectura de Pau. La democracia molesta a Francia.

José Luis Álvarez Empanza «Txillardegí», testigo de la situación que viven en estos momentos los refugiados en huelga de hambre nos cuenta sus impresiones.

«El día 11, diez huelguistas, siete mujeres y tres hombres eran trasladados al hospital de Bayona. Entre ellos, el padre Larzabal. Los huelguistas carecían de glucosa, su tensión era muy baja. La debilidad orgánica se hacía cada vez más patente.

Una de las mujeres, lloraba de dolor: las puntas de sus dedos estaban moradas. A pesar de todo, se negaba a comer. Llegó a vomitar los alimentos que le habían sido suministrados.

Entre los huelguistas, se encontraba gente que lo había dado todo por Euskadi, y lo había hecho en silencio.

Cuando conté estas impresiones, se me respondió que era una exageración, que se escondía algo detrás de la huelga de hambre.

Quien responde así, no sabe lo que es una huelga de hambre, ni el destierro, ni la cárcel, y desde luego, pertenecen al grupo que el 28 de octubre abrió la veda de lo que hoy sucede.

Si entre las huelguistas se encontraran la señora de Garaikoe-txea o de Arzalluz... ¿Cuál sería la respuesta?